



ARANTZAKO UDALA

OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.02.28

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu. *Gai ordenako 6. puntuan sartu da.*
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Idazkariaren lanaldi luzapen osagarri igoera onespena.
3. 2024ko plantilla organikoaren aldaketa. Hasierako onespena.
4. 2025eko aurrekontua eta exekuzio oinarriak. Hasierako onespena.
5. 2025eko plantilla organikoa. Hasierako onespena.
6. Udalaren jabetzako etxebizitza, "Medikuaren etxea" izenekoa, lehiaketa bidez errentan emateko kontratazioa arautzen duen pleguen onespena.
7. Arantzako zain irauliak aprobetxatzeko eskaeren onespena:
 - a. Natalia Goñi Madariaga.
 - b. Pello Telletxea.
8. Arantzako Euskara Erabilera Areagotzeko Plana onespena.
9. M8ko adierazpen instituzionala.
10. Alkate Ebazpenak.
11. Eskaerak eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2025eko urtarrilaren 17ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. IDAZKARIAREN LANALDI LUZAPEN OSAGARRI IGOERA ONESPENA.

Alkateak Nagore Madariaga Iriartek (udaleko idazkari-kontuhartzaileak) 2025eko urtarrilaren 12an egindako eskaeraren berri eman du (25/2025 sarrera zk.). Azaldu du idazkariak 2024 urtean 226 ordu eta 57 minutu estra sartu zituela eta, gainera, 6 opor egun hartzekoak zituela. Aipaturikoagatik ez duenez inongo konpentsaziorik jaso, 2024ko urtarrilaren 1erako atzera eraginarekin lanaldi luzapen osagarria %5era igotzea eskatu du.

Zentzu horretan, udaleko aholkularitza juridikoak (Biderka), 2025eko urtarrilaren 22ko datan aipaturiko lanaldi luzapen osagarria igotzeko aldeko txostena egin du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Nagore Madariaga Iriartek, udaleko idazkari-kontuhartzaileak, egindako eskaera onartzea, hau da, idazkari-kontuhartzailearen lanaldi luzapen osagarria %10era igotzea 2024ko urtarrilaren 1erako atzeraeraginarekin.

2.- Akordio hau eskatzaileari jakinarazpena, bere ezaguera eta ondorioetarako.

3. 2024KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du aitzineko puntuan udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren lanaldi luzapen osagarria %10era igotzea adostu dela 2024ko urtarrilaren 1erako atzera eraginarekin.

Hori horrela izanik, aipaturiko akordioa behin betikotzeko udalaren 2024ko plantilla organikoa aldatu beharra dela adierazi du. Horretarako Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoa jarraitu beharra da.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Arantzako Udalaren 2024ko plantilla organikoaren aldaketari hasierako onespena ematea.

2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.



ARANTZAKO UDALA

3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, behin betiko onestea 2024ko plantilla organikoaren aldaketa eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. 2025EKO AURREKONTUA ETA EXEKUZIO OINARRIAK. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak 2025eko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak azaldu ditu.

DIRU-SARRERAK:

I. kapitulua.-Zuzeneko zergak: 180.310,00

II. kapitulua.-Zeharkako zergak: 30.000,00

III. kapitulua.-Tasak, prezio publikoak eta bertzelako diru-sarrerak: 57.080,00

IV. kapitulua.-Transferentzia arruntak: 347.420,00

V. kapitulua.-Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 94.720,00

VII. kapitulua.-Kapital transferentziak: 251.000,00

Diru-sarrerak, guztira: 960.530,00

GASTUAK:

I. kapitulua.-Langileria gastuak: 261.220,00

II. kapitulua.-Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 203.176,00

III. kapitulua.-Finantza gastuak: 2.340,00

IV. kapitulua.- Transferentzia arruntak: 82.920,00

VI. kapitulua.-Inbertsio errealak: 385.450,00

IX. kapitulua.-Finantza pasiboak: 25.424,00

Gastuak, guztira: 960.530,00

Zentzu horretan, idazkariak **berriaz ohartarazi du** proposaturiko 2025eko aurrekontua 2024ko aurrekontuarekin alderatuta, kapituluetako kopuruak aintzat harturik, ez lukeela gastu-araua beteko. Izan ere, nahiz eta 2024ko kontuak oraindik itxitzekoak diren, aurrekontua planteaturiko moduan gauzatuz gero, ez luke gastu araeuko irizpideak beteko eta, horren ondorioz, Plan Ekonomiko Finantzario bat egin beharko litzateke. Halaber, ez litzateke plan hori egin beharko baldin eta udalak 2025eko aurrekontua ixten badu gastu orokorretarako eta aurrezki garbi positiborako diruzaintzako gerakinarekin eta hurrengo ekitaldirako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzen baditu. Beraz, puntu hau kontutan hartu beharko da 2025 urtean zehar.

Horrela bada, azaldu du 2025eko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 267tik 272ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera egin beharra dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2025eko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriei hasierako onespena ematea.



ARANTZAKO UDALA

2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea 2025eko aurrekontua eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. 2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak Arantzako Udalaren 2025eko plantilla organikoa azaldu du:

LANPOSTUAREN IZENA	ARAUBIDE JURIDIKOA (1)	LANALDIA (%)	MAILA	SARBIDEA (2)	OSAGARRIAK (3)						LANEKO EGOERA	EUSKARA MAILA (4)	
					L.O.	M.O.	B.O.	Z.L.O.	L.L.O.	A.B.O.			
Idazkaria/Kontuhartzailea, Igantziko Udalarekin batera, burua Arantzan	F	100	A	O.L.	3,72		35			10		Hutsik	C1 (A-I)
Administrari- ofiziala	F	100	C	O.L.	3,36	12						Jardunean	C1 (A-I)
Zerbitzu anitzetako arduraduna	F	100	C	O.L.	6,36	12						Jardunean	B2 (A) B1 (I)
Garbitzailea	F	100	E	O.L.	19,85	15						Jardunean	B2 (A) B1 (I)

LABURDURAK: (1) F = funtzionarioa; A.A.L.= administrazio araubide bitarteko langileak. (2) O.= oposizioa; O.L. = oposizio-lehiaketa. (3) L.O.= lanpostu osagarria; M.O.= maila osagarria.; B.O.= bateraezintasun osagarria; Z.L.O.= zuzendaritza lanpostuko osagarria; L.L.O.= lanaldi luzapen osagarria; A.B.O.= arrisku bereziko osagarria. (4) Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2019ko irailaren 23an egindako txostena: A= ahoz; I= idatziz.

Horrela bada, azaldu du Arantzako Udalaren 2025eko plantilla organikoa onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharra dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Arantzako Udalaren 2025eko plantilla organikoari hasierako onespena ematea.

2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, behin betiko onestea 2025eko plantilla organikoa eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



ARANTZAKO UDALA

**Itziar Arotzena Bergara zinegotzia bilkurara sartu da.*

6. UDALAREN JABETZAKO ETXEBIZITZA, "MEDIKUAREN ETXEA" IZENEKOA, LEHIAKETA BIDEZ ERRENTAN EMATEKO KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN PLEGUEN ONESPENA.

Idazkariak udalaren jabetzako etxebizitza, "Medikuaren Etxea" izenekoa, lehiaketa bidez errentan emateko kontratazioa arautzen duen pleguaren berri eman du. Etxebizitzaren errentan Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak arautuko du nagusiki, baina honen esleipena plegu itxi bidezko lehiaketa publiko bidez eginen da (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 127.2. artikulua).

Horri dagokionez, osoko bilkurara bertaratutako kideek plegu arautzailearen inguruan eztabaidatu dute eta proposaturiko pleguan ondorengo aldaketak egitea adostu dute:

- 4. Klausula: urteko errenta 4.200,00 €-tan zehazten da.
- 7. Klausula: eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA (1) izanen da iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- 10. Klausula:
 - o 2. gutun-azaleko irizpideak ondorengoak izanen dira:
 - 2. puntua: Parte hartzailea gaur egun etenik gabe erroldatuta egotea, gehienez HAMAR (10) PUNTU:
 - Estatuko edozein udalerritan erroldatutako antzintasun urte bakoitzeko: 0,50 puntu.
 - Arantzan erroldatutako antzintasun urte bakoitzeko: 2,00 puntu.
 - 3. puntua: aitzineko ekitalditik datozen diru sarrerak (errenta-aitorpenaren azken urtea), gehienez ere BERROGEI (40) PUNTU. Familia unitate osotik datozen diru sarrerak hartuko dira kontuan, eta honela puntuatuko dira:
 - 7.000,00 eurotik 10.999,99 eurora: 40,00 puntu.
 - 11.000,00 eurotik 11.999,99 eurora: 35,00 puntu
 - 12.000,00 eurotik 12.999,99 eurora: 30,00 puntu.
 - 13.000,00 eurotik 14.999,99 eurora: 25,00 puntu.
 - 15.000,00 eurotik 16.599,99 eurora: 20,00 puntu.
 - 16.600,00 eurotik 18.999,99 eurora: 10,00 puntu.
 - 19.000,00 eurotik 23.999,99 eurora: 5,00 puntu.

Plegu arautzaileari dagokionez, idazkariak **berariaz ohartarazi du** iragarkia argitaratu aitzinetik, errentan eman behar denaren inbentarioa egin beharra dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:



ARANTZAKO UDALA

1.- Udalaren jabetzako etxebizitza, "Medikuaren Etxea" izenekoa, lehiaketa bidez errentan emateko kontratazioa arautzen duen plegua onestea, azalpenean aipaturiko aldaketak eginez eta inbentarioa egitera baldintzatuz.

2.- Aitzineko puntuan adierazitako baldintzak betetzean, lehiaketaren iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea, orok jakin dezan.

3.- Iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu bezain abudo, Arantzako webgunean argitaratzea eta bando bidez zabaltzea bizilagun orok horren berri izan dezan.

7. ARANTZAKO ZAIN IRAULIAK APROBETXATZEKO ESKAEREN ONESPENA:

A) NATALIA GOÑI MADARIAGA.

B) PELLO TELLETXEA.

Idazkariak ondorengo eskaeren berri eman du:

1. Natalia Goñi Madaria (2025/01/24 74/2025 sarrera erreg. zk.) – Gaisenberro parajeen dagoen zain iraulia aprobetxatzeko eskaera.
2. Pello Tellechea (2024/12/13 83/2025 sarrera erreg. zk.) –Itsaszelaieta parajeen dagoen zain iraulia aprobetxatzeko eskaera.

Horri dagokionez, Bidasoako Basozainak zain irauliak markatu ditu eta balorazio hau egin du, hurrenez hurren:

1. 1 m³ dituen 1 ondo da, 10,00 €-tan baloratuak.
2. 8 m³ dituen 1 ondo da, 80,00 €-tan baloratuak.

Horrela bada, idazkariak berriaz ohartarazi du Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 26. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 170. artikuluan xedaturikoari jarraiki, aipaturiko zain irauliaren aprobetxamendua egiteko udalak egindako balorazioaren arabera zuzenean saldu dezakeela bizilagunari.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Ondorengo zain irauliak aprobetxatzeko baimena ematea, jarraian zehazturiko kanonak ordaintzeko baldintzapean:

- Natalia Goñi Madariagari, Gaisenberro parajeen markatutako zain iraulia (1 m³ dituen 1 ondo), 10,00 €-ko kanona ordaintzeko baldintzapean.
- Pello Tellecheari, Itsaszelaietako parajeen markatutako zain iraulia (8 m³ dituen 1 ondo), 80,00 €-ko kanona ordaintzeko baldintzapean.



ARANTZAKO UDALA

2.- Akordio hau Natalia Goñi Madariagari eta Pello Telletxeari jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

8. ARANTZAKO EUSKARA ERABILERA AREAGOTZEKO PLANA ONESPENA.

Idazkariak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak prestaturiko 2023-2027 Arantzako Euskara Erabilera Areagotzeko Planaren berri eman du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2023-2027 Arantzako Euskara Erabilera Areagotzeko Plana onartzea.

2.- Akordio hau Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

9. MARTXOAK 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek ondorengo adierazpen instituzionala AHO BATEZ ONARTU DUTE:

Desberdinkeria errealitate, justizia lortzeke

Aurten, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Nafarroako Toki eta Lurralde Erakundeetako Berdintasun Teknikarien Sareak mezu argi bat helarazi nahi du: Genero berdintasuna oraindik lortu gabe dagoen justizia sozialeko auzi bat da. Legeek eta araudiek berdintasun formala aitortu arren, berdintasun erreala ez da lortu, egunerokoan oztopo nabarmenei aurre egin behar baitiete lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak egin behar dituztelako.

Nafarroako estatistikek hala erakusten dute: emakumeek gizonek baino % 20 gutxiago kobratzen dute, eta % 36 dira emakumeak lidergoko postuetan. Emakumeek betetzen zituzten, 2020an, lanaldi partzialeko enpleguen % 80 baino gehiago eta, gainera, familia betebeharrekin haien lanaldia baldintzatzen dutela adierazten dutenen % 87 emakumeak dira. Haiek denbora bikoitza ematen dute zaintza-lanetan eta etxeko lanetan, eta horrek eragin negatiboa izaten du kalitatezko enpleguak lortzeko eta, oro har, haien ongizatean. Horren adibide da zaintza lanen eraginez ordaindutako enpleguan emakumeek izaten duten inaktibitate-tasa % 27,2 dela. Sektore feminizatuak dira oraindik prekarizatuak, eta batez ere emakumeek hartzen dituzte beren gain ordaindu gabeko lanak; eta horrek beren garapen profesionala mugatu eta bizitzaren eremu guztiei eragiten dien genero-arrakala iraunarazten du. Arrakala hori areagotu egiten da emakumeak migratzaileak direnean, desgaitasunen bat dutenean, LGTBIQ+ kolektibokoak direnean, eta abar.



ARANTZAKO UDALA

Ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren dualtasunaren emaitza egiturazko desberdintasuna da, urgentziaz agerian jarri eta konpondu behar dena. Horixe bera salatzen ari da feminismoa 60ko hamarkadatik, alegia, zaintza lanen kontzeptuaren esanahia berrikusi zenetik.

Ezinbestekoa da aurrera egitea emakume guztien lana aintzat hartu eta baloratuko duen gizarte baterantz, erantzukidetasuna eta berdintasun politikak sustatu eta berdintasun erreala eragozten duten oztopoak ezabatuko dituen gizarterantz. Fake news delakoa atzean uzteko garaia da, baita berdintasuna jada lortua dela baieztatzen duten mito antifeministak ere. Erakunde, enpresa eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen diegu oraindik ere gure gizartean irauten duten genero arrakalak desagerrarazteko. Horretarako, adierazpen honen sinatzaileok honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Erantzukidetasuna sustatzeko sentsibilizazio programak eta kanpainak diseinatu eta abian jartzea, gizonak eta emakumeak neurri berean inplikatur eta interseksionalitatea kontuan hartuz, egoera zaugarrienetan dauden kolektiboen behar espezifikoak erantzuteko.
- Gure erakundeetako generoari loturiko soldata-arrakalaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko neurriak garatzea, eta bermatzea lan-hitzarmenek eta -akordioek emakumeen lanaren balorazio justua islatzen dutela, bereziki sektore feminizatuetan.
- Ordaindu gabeko lana bizitzaren iraunkortasunerako ardatz nagusi gisa aitortzen eta baloratzen duten tokiko politikak ezartzea, eta pertsona guztientzako zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea.
- Genero-berdintasunari buruzko etengabeko prestakuntza eskaintzea gure erakundeetako langile guztiei, eta politika publikoak eta administrazio-erabakiak genero-ikuspegiarekin aplikatzen direla ziurtatzea.
- Mugimendu feministak arlo horretan egindako ekarpenak eta lana aitortzea, eta antolatzen dituzten ekitaldi eta kontzentrazioetan parte hartzea gonbidatzea.

Ekintza horiek Nafarroa berdinzalegoa eta feministagoa eraikitzen lagunduko dute, non emakumeek baldintza berdinetan parte hartu ahal izanen dugun bizitzaren eremu guztietan.

10. ALKATE EBAZPENAK.

2025eko 8tik 30era Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

11. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 18:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.



ARANTZAKO UDALA

ALKATEA,

Saturnino Larralde Ibarrola

Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,

Nagore Madariaga Iriarte